



Batak ez du bestea kentzen Gerardo Markuleta

Liburuak oso inpresio ona eragin dit. Poema batzuk hain onak dira (“Partitzeko tenorean”, “Orduan”), ezen, gero kosta egiten baita “haietatik jaistea”, poemario osoa, oro har, benetan ondo planteatuta badago ere, eta berau irakurtzea, beraz, atsegin eta plazer hutsa da. Poesia gustatzen bazaizu, hemen duzu poesia-liburu on bat. Akaso poesia-liburu bati buruz hitz egitea nobela bati buruz hitz egitea baino zertxobait korapilatsuagoa da, poesian dena baita abstraktuagoa. Nobelarik gehienetan aurkitu ohi ditugun erreferentziazko puntuak ez dira azaltzen poesian (edo, azaltzen dira, baina beste modu batez

bilatu behar dira). Jakina, ez da inolaz ere “ezinezkoa” poesia-liburu bat zergatik gustatzen zaigun jakitea, arrazoiak topatzea alegia; nahiz eta, ziur aski, gehiago ahalegindu beharko dugun, azaldu ditudan arrazoiengatik.

Irudi jenialak ditu, pisuzkoak (“Bakarzalea gabon zaharrea”) edo badira delizioski abstraktuak direnak (“Arin dira gauak burura amiltzen”), iradokorrak (“Eskailerak berak balio ditu / orain jaisteko, orain igotzeko”). “Erruaren kirrua” poeman hizkuntzarekin lexikoki jolasean ari da; areago, “Akerrak adarrak okerrak ditu” estiloko hitz-joko klasikoak ekartzen ditu gogora. Markuletaren poesian sentsualtasuna eta erotismo (diskretu) bat ere presente daude (“Azken”, “Pultsera bikiak”), bai eta nahita bilaturiko musikaltasuna ere (“Ondo gogoan”, “Beldurraren etxean”). Gero, emakumeei buruz dituen zenbait poematan apur bat *Tenorio*, apur bat *Gautxo* eta *Latino* agertzen zaigu... Liburu honetako poesiaz askoz gehiago esan nezake, baita duina baino askoz gehiago den poeta euskaldun honetaz ere. Baina hemen utziko dut, ez bainaiz unibertsitateko irakaslea (tamalez).

Bukatzeko, gogoeta labur bat –halako garrantzia badu ere–. Poesiarekin gertatzen da musikarekin bezala. Musikako CD bat erosten dugu, eta gustatzen bazaigu, askotan entzungo dugu. Areago, litekeena da CD hori gure bizitza osoan bidaide izatea. Eta poesiarekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Poesia-liburu bat, benetan gogoko badugu, ez da behin bakarrik irakurtzeko, askotan irakurtzeko (*entzuteko*) baizik. Ez da horren erraza, badakit. CD bat entzun dezakegu lanean ari garen bitartean, autoa gidatzen dugun bitartean, e.a; irakurtzeak ordea, beti exijituko digu arreta eta kontzentrazio handiagoa jartzea. Alde horretatik, irakurtzea jarduera zorrotzagoa da. Dena den, tiroak hortik doazela (“hor nonbait doa kontua”, Ibon Sarasolaren hitzetan) uste dut. Aditzaile onari, hitz gutxi (hau ere Ibon Sarasolari zor).